

**2001EKO AZAROAREN 24AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO
PREMIAZKO ETA APARTEKO BILERAKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita laua

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila eta bat

HASIERAKO ORDUA: Hamaikak eta hogeita hamar.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Premiazkoa eta apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Pello Garaialde Goikoetxea
Jose Antonio Guirado Tristan
Jon Berbel Aiestaran
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Leire Lopez Zurutuza
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge

ETORRI GABEA: Jorge Juan Outeiral Fernandez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- PREMIAZKO IZAERAREN AITORPENA

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Egunon eta ongi etorriak premiazko eta aparteko bilera honetara. Denok jakin dugu atzo Beasainen atentatu bat bizi izan dugula. Ustez ETAk egindako ekintza horren ondorioz, herriarentzako zerbitzua egiten ari ziren bi pertsona, bi zerbitzari publiko, bi ertzain hil dituzte. Horren aurrean, premiazko Udalbatzar hau ospatzera deitu dut, udal-ordezkariek horrelako ekintza baten aurrean gure jarrera zein den adierazteko. Uste dut atzokoa jasan ezinezkoa dela, erabat salagarria dela. Beraz hemen bildu gara horren aurrean gure jarrera definitzeko.

Udalbatza honen hasieran eta herri honetako Alkate bezala, hemen zaudeten guztioi begirunezko jarrera eskatzen dizuet ordezkariak agertuko dituzten iritziekiko. Orain arte Udal honek oso zorrotz jokatu du udal-ordezkariek duten eta azaltzen dituzten iritzien errespetuari dagokionean. Beraz, hemen zaudeten guztioi eskatzen dizuet, errespetu dezazuela hemen gaur udal-ordezkariek eztabaidatuko dugun guztia eta irizten dugun guztia, beti horrela izan delako herri honetan.

Este es un Pleno en el que sólo tomaremos parte en el debate, los representantes municipales.

Dicho esto doy comienzo al Pleno, pasando a tratar el primer punto.”

Premiazko izaeraren aitortenari buruz, Alkateak hitz egiteko txanda eman du eta aho batez onartu da mozioa tratatzeko Udalbatzaren Osoko Bilkura egitea.

2.- 2001EKO AZAROAREN 23AN IZANDAKO, ANA ISABEL AROSTEGI ETA FRANCISCO JAVIER MIJANGOS ERTZAINEN HILKETAREN AURREAN AURKEZTEN DEN MOZIOA.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “EAJ-EAk, alderdi sozialistak eta alderdi popularrak aurkezten dugun mozioa irakurriko dut:

“BEASAINGO UDALAREN MOZIOA, ANA ISABEL AROSTEGI ETA FRANCISCO JAVIER MIJANGOS ERTZAINEN HILKETAREN AURREAN

Gure herrian gertatu diren bi Ertzainen hilketa ikaragarrien aurrean, zera adierazten du Beasaingo Udalak:

1. Lehenik eta behin, hilketa hauen aurrean gure gaitzespenik gogorrena adierazten dugu eta, era berean, hildako ertzainen familiei, euren lankide eta lagun, eta oro har Ertzaintza osoari gure elkartasuna eta atxikitasuna adierazten diegu.
2. ETAk beasaindarren askatasuna eta segurtasuna zaintzen zuten bi zerbitzari publiko hil ditu. Beasaingo herritarren ordezkari modura, gure herrian lanean diharduten ertzain guztiak ditugu gogoan, eta geure hurbiltasuna eta babes osoa helarazi nahi diegu.
3. Behin berriro, ETAk entzungor egiten die euskaldunen eskariei, gizakiak hilaz eta gure gizartean etsipena hedatuaz. Baina ETAk jakin beharra dauka euskaldunok inoiz ez dugula onartuko hiritarren gehiengoaren kontra inposaturiko proiekturik.
4. ETARI armak behin betiko alde batera utz ditzala exijitzen diogu.
5. Bi egun, gaur eta bihar, dolu-egun izendatu Udalerri honetan.
6. Udal honek bat egiten du hilketa horiek salatzeke burutzen diren deialdi guztiekin. Hori dela eta, beasaindar guztiei dei egiten die, gaur eguerdian Udaletxearen aurrean bil daitezen, eta gure herrian arratsaldeko 7,30ean ospatuko den manifestaldian parte har dezaten.

Beasainen, 2001eko azaroaren 24an.

EAJ-EA,

PSE-EE,

PP,”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Conforme con la moción”.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Kasu honetan hemen bilduta bagaude, atzo arratsaldean herrian bi pertsona hil zituztelako da. Zoritxarrez horrelako egoeretara ohituta gaude eta hemen egiten ditugun bilkuretan, komunikatuetan eta manifestaldietan, askotan bihotzaren gertutasuna galduta

duen hizkuntza bat erabiltzen dugu. Kondenatu, kondenatu egiten ditugu horrelako ekintzak. Errealitatea da atzo bi pertsona hil zituztela. Ertzainak izatea edo ez izatea bere bizitzako akzidente batzuk ziren. Gaur egun bi pertsonen senitartekoek beren bihotza eta bizitza lehertuta edukiko dute. Baina beraien hiltzaileek, hiltzaileak besterik ez dira, eraile bakarrak, eraile hutsak. Egin duten gauza bakarra da, pertsona batzuei bizitza kentzea. Zoritxarrez gaur larunbat goiz honetan behartuta gaude bilera bat egiteko. Azkenean Udalbatza hau bildu da, herriaren mesederako lan egiten ari ziren bi pertsona hil dituztelako, erail dituztelako. Deialdi bat egin nahi nuke, behingoz Udalbatza honek aho batez horrelako ekintzak zalantzarik gabe salatzen. Hacemos a su vez un llamamiento unánime a la gente para que salga esta tarde a las 7,30 a la calle para condenar sin ningún tipo de matiz ni dudas los asesinatos como los que se cometieron ayer en este pueblo. Ojalá que esa condena unánime sea la mejor noticia que pueda salir de este Pleno.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Gure boto-zentzua abstentzioarena izango da eta hori arrazoitzeko ondorengo testua irakurriko dut: “Atzo iluntzean gure herrian gertatu zen ekintzaren ondoren, Batasunak honako adierazpenak egin nahi ditu:

1.- Gure herriak berriro ere hunkituta hartzen du atzo iluntzean Beasainen izandako gertaera. Urte gehitxotan luzatzen ari den gatazkaren beste adierazpide tamalgarri bat da. Honen aurrean lehenik eta behin hildakoen senitartekoei gure gertutasuna eta saminaren ulermena helarazi nahi diegu.

2.- Bestalde eta gatazka honetan dugun partearen ardurari uko egin gabe, honelako gertaerak behin betirako amaitzeko une honetan lanean jarduteko konpromisoa azaltzen dugu. Salaketa antzuek gainontzekoen ardurak zurrizko balio ez izateaz gain Euskal Herriak behar duen konponbide demokratikora hurbiltzeko baliorik ez dutelakoan.

3.- Heriotza hauekin urratu diren eskubideak, egunero urratzen direnak eta herri honi bere aitortza ukatzearekin ematen direnak amaitzeko, autodeterminazio-eskubidea da benetako giltza. Oinarrizko eskubide hauen errespetutik, gatazka gainditzea lortuko baitugu.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Ados gure mozioarekin”.

Jarraian, Patxi Plazaola jaunak Batasunako ordezkariak irakurritako testua itzuli du Alderdi Popularrekoek eskatuta.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Kasu honetan ere zoritxarrez gertatutakoa ez da aho batez salatuko. Herrian hilketa batzuk daude eta erantzunak politiketaz hitz egiten dute, baina politiketaz hitz egiteko hildakoen beharrik ez dago. Sortzen diren galderak hauek dira: zenbait odol gehiago behar da, zenbait hildako gehiago behar dira, horretarako gogoia daukaten jendea asetzeko?. Zenbait hildako behar dira, Batasunak jarrera aldatzeko eta gai izateko Udalbatza honekin bat egiteko eta aho batez honelako ekintzak salatzeko?”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “No es momento de hablar de política ni de actos políticos. Hoy hemos venido a condenar rotundamente los asesinatos de ayer. Hemos venido a mostrar nuestro dolor, nuestro pesar y nuestra adhesión a los familiares de los asesinados y a la Ertzaintza, y vosotros aprovechando los derechos democráticos que esta democracia imperfecta os dan, aprovecháis también esta situación para defender vuestras ideas. Lo único que pedimos es que vosotros pidáis a esos que no respetan los derechos humanos, no respetan la democracia, que dejen las armas y les digais públicamente que este pueblo no os necesita.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, EAJ/PNV-EAk, PSE-EE/PSOEak eta PPK aurkeztutako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (Batasuna)

Beraz, gehiengo nagusiz mozio hau onartu egin da.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera eguerdiko hamabietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut: